



ALDAHITZ IKERKETA

Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan

Ondorioen sintesia

2011ko irailean

A.- Sarrera orokorra

Ahalegin handiak egiten ari dira egun euskararen erabilera lan-munduan zabaltzeko. Horren erakusle ditugu, besteak beste, herri erakundeetan zein eremu pribatuko hainbat enpresa eta kooperatibatan garatzen ari diren euskara-planak.

ALDAHITZ ikerketak arlo horretan bere ekarpena egin nahi izan du. Ekarpentxoak esango genuke, ikergaia berez askoz ere zabalago eta korapilatsuagoa baita guk aztertu ahal izan duguna baino. Apaltasunetik beti ere, tipologia jakin eta zehatz batean jarri nahi izan du arreta Aldahitz ikerketak; hain zuzen ere, heltzaroan euskara ikasi eta aldi berean lankideekin euskaraz egiterainoko ohitura finkatu duten langileen tipologia jo dugu begiz.

Geunden, eta gaude, halako kasu arrakastatsuen azterketa batek argitasun handia ekarriko zigula. Nolabait, haien testigantzetan aukera dugu ikusteko zein baldintza sozial eta pertsonaletan izan den posible langile hauek beren lankideekin euskara normaltasunez erabiltzera pasatzea.

Ez dugu kopuru handitara jo, eta ez dugu metodologia estatistikan oinarritu. Ordea, kasu gutxi batzuetara mugatu dugu azterketa, eta ikuspegi kualitatibotik heldu diogu lanari. Kasu gutxi bai, baina sakontasun handian aztertuta, kasuistikaren atzean zeuden alderdi komunak (gakoak) identifikatu nahian.

Zortzi langileen kasuak aztertu ditugu guztira, sakonki aztertu ere. Erdia herri erakundeetakoak, beste erdia enpresa pribatuetakoak. Multzo horietako bakoitza, aldi berean, lau kategoriatan graduatu dugu, aintzat harturik lantokia zein zonalde soziolinguistikotan dagoen kokatuta. Lehenengo kategoria zonalde euskaldunari dagokio, laugarrena zonalde erdaldunari, eta erdiko bigarren eta hirugarren kategoriak tarteko zonalde soziolinguistikoei dagozkie. Aldez aurretik hala mugatu ez badugu ere, praktikan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaikoak izan dira aztertutako langileen kasuak.

Zortzi langile horiek aurkitzea, Aldahitz ikerketa bultzatu eta babestu duten erakundeen lana izan da. Alegia, honako erakunde hauek: AEK, EMUN, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hernaniko Udala eta ELHUYAR Aholkularitza. Ikerketaren garapen teknikoaz eta koordinazioaz Soziolinguistika Klusterra bera arduratu da, Pello Jauregi eta Pablo Suberbiola ikerlarien bitartez.

Langile bakoitzari elkarrizketa sakona egin zitzaion, bere hizkuntza bilakaera ezagutzeko asmoz. Datu batzuk ere jaso genituen bakoitzaren testuingurua ahalik eta gehien ezagutzeko, eta hala esperientzia hobeto kokatzeko. Langileei egindako elkarrizketez gain beste zortzi elkarrizketa osagarri ere egin ditugu. Gehienetan, langile horien irakasle erreferentzialengana jo dugu, aztertutakoen ikas-prozesuaren berri kualitatiboa eman ziezaguten. Beste batzuetan, ordea, historiaren beraren zirkunstantziak bultzatuta, irakaslearengana jo ordez, protagonistaren bidelagun izan den lankide

euskaldunarengana jo izan dugu. Material honek guztiak –elkarrizketa zuzenak, galdetegiak eta elkarrizketa osagarriak, alegia- osatu du esku artean ibili dugun informazio-korpusa.

Ikerketa, 2010eko ekainean hasi eta 2011ko ekainean burutu da. Hemendik gure eskerrik beroenak honetan parte hartu duten pertsona guztiei, euren esperientziak gurekin partekatuta aukera paregabea eman digutelako hizkuntzaren jabekuntzaz eta hizkuntza jokaeraren aldatetaz oraino dugun ezagutza apurrari beste apurtxo bat gehiago metatzeko.

Hona hemen, laburki bada ere, azterketa honetatik eskuratu ditugun jakintzak, atera ditugun ondorioak eta gogoan piztu zaizkigun usteak¹. Baina hasteko, aurkez ditzagun zortzi kasuetako protagonista nagusiak.

B.- Kasuen aurkezpen laburra

ISABEL: Euskaraz egitea benetan beharrezkoa denean

Gipuzkoako herri euskaldun txiki bateko udaletxean lan egiten duen aparejadorea da. Isabeli gutxi falta zaio ikas-prozesua borobiltzeko. Pasa den ikasturtean bigarren mailaren agiria eskuratu zuen, eta orain lanean ari da hirugarren maila ere erdiesteko (EGArekin parekidea dena alegia). Egun, alkatearekin-eta bilerak euskaraz egiten ditu, hala berean udal langile gehienekin eta herritarrekin ere. Hortaz, egoera ia normalizatua erakusten du euskararen erabilerari dagokionez. Hau guztia bost urteko trantsizio batean. Orain dela bost urte lanpostu hau onartu zuenean, jakin bazekien lana perfiatuta zegoela hirugarren hizkuntza eskakizunarekin. Bere hizkuntza maila, ordea, baxua zen. Euskara teknikariak, ondorioz, euskara plan berezia diseinatu behar izan zuen berarentzat alkatearen aginduz. Orduz geroztik ahalegin handia egin behar izan du Isabelek oraingo puntura heltzeko, eta esan daiteke azken helburua ia-ia eskura duela. Harro sentitzen da bera, -eta ez da gutxirako-, oraino egin duenarekin.

JULEN: Kirolarien kemena eta izpiritua hizkuntzaren jabekuntzara eramán duena

Eskualde euskaldun samarrean kooperatiba handixko batek duen planta bateko langile montadorea da Julen. Egun, nahiko hitz-jario polita du euskaraz, doinua eta hizketa-moldea bera ere oso herrikoiak. Igartzen zaio euskaltegia baino gehiago kalea eta lantokia bera izan dituela ikas-toki. Orain dela bost bat urte gertatu zen inflexio puntua lantokian, berak eskatu zuenean euskarazko eskolen antolakuntza. Handik aurrera agerian gelditu zen kideen aurrean berak euskararekiko zuen aldeko jarrera, eta askoren harridura ere handia izan zen konturatzean euskaraz nola edo hala hitz egiteko gaitasuna bazuela. Une honetatik aitzina hasi zitzaizkion hizkuntza harremanak aldatzen. Denetan aipagarriena Jaime bere saileko arduradun nagusiaren jokaera, gertaera haren berri eduki bezain

¹ Lan honetan ikerketaren *Ondorioen sintesia* jasotzen da. Informazio zabalagoa nahi duenak jo beza ikerketari buruzko txosten zabalagoetara: *Aldahitz 2011. Txosten osoa*. edota *Aldahitz 2011. Ondorio nagusien txostena*.

laster euskaraz hasi baitzitzaion. Egun, lantokiko euskaldun guztiekin euskaraz egiten ez badu ere, lankide mordotxorekin egin du jauzia euskararen aldera.

ANE MIREN: Diziplinaren eta lan sistematikoaren indarra

2003. urtetik hona Osakidetzako Ospitale batean dihardu Ane Mirenek giza baliabideen teknikari gisa, eskualde euskaldun samarrean. Egun, ahaleginetan dabil zeregin formaletara aldatzeko honez gero harreman informaletan hainbat eta hainbat lankiderek lortu duen euskarazko eguneroko erabilera. 2008. urtean EGA agiria eskuratu ondoren, buru-belarri dabil orain bere burua prestatzen euskara teknikoaren alorrean, hartara behartuta ez egon arren, benetan berak nahi duelako lan eremu guztietan, formalean ere, euskaraz erabateko normaltasunez jardun. Ane Mirenek txikitatik izan du euskarekiko grina. Oraingo lanean hasi aurretik ere jada erabakita zuen bere semea jaiotzean euskaraz egingo ziola. 2003. urtean, Ospitalean hasi eta, bere harridurarako, euskara erabiltzen zuten lankide asko samarrekin egin zuen topo. Honek areagotu egin zuen euskararekiko zuen berezko grina. Bere lanpostua hizkuntzaren aldetik perfilatuta ez egon arren, gogotik lotu zitzaion euskara ikasteari bertako Hizkuntza Eskolan. Berehala, euskaraz hasi zitzaizkion gertuko lankide euskaldun batzuk, jakin zutenean euskarazko eskolak hartzen hasia zegoela. Harrez geroztik, ikasi eta erabili, erabili eta ikasi, oso elkarri uztarturik joan zaizkio biak Ane Mireni.

IRENE: Txikitatik eta barrutik datorren barne-indarra

Irene, bederatzi eta sei urteko bi alabaxoren ama duzue, eskualde euskaldun samarreko ikastetxe bateko jantokian begirale gisa lan egiten duena. Lanaldia hiru ordu eta erdikoa baino ez du. Euskara beharrezkoa du lanerako eta horrek, zalantzarik gabe, bultzada eman dio euskalduntze prozesuari. Hango lankideekin ez du arazo handirik euskaraz egiteko. Hala ere, bere euskalduntzearen gako nagusiak lanetik kanpo (kalean, familian, herrian...) daude lantokian bertan baino gehiago. Beti izan du euskararekiko grina berezia. Euskara eta euskal kultura beti izan ditu gogoko. Txikitatik garbi izan du euskalduna (euskara duena) izan behar zuela. Eta ziur zegoen, gainera, lortu egingo zuela. Irenek, azkeneko urte parean-edo AEK Euskaltegian ibili arren, kalean bertan eskuratu du hizkuntza gaitasuna, modu natural batez, herriko jendearekin eta gertuko lagun eta ezagunekin euskaraz eginez. Horregatik, euskaltegira agertu zenean, oso denbora gutxi behar izan zuen EGA titulua eskuratzeko. Elkarriketa egin genionean oso hizkera herrikoi ederra zerion ahotik jario politoan; hain zuzen ere, eskola batean ikasten ez den doinu eta adierazkortasunaren jabe zen.

LUIS ALBERTO: "Desikastea" euskara erabiltzeko bidea topatu zuena

Luis Albertok, egun, zerbitziburu gisa dihardu herri ez oso euskaldun bateko herri administrazioaren erakunde handi samar batean. Hamaseiren bat kidek osatuta dagoen zerbitzu honek orain urte batzuk jaso zuen Bikain Agiria, euskararen normalizazioan egindako aurrerapen handia ezagutzeko. Batetik, Luisen bilakaera, eta bestetik, zerbitzuarena, biak oso uztarturik etorri dira prozesuan zehar. Luisek, egun, normaltasunez dihardu euskaraz lankide gehienekin, eta laugarren hizkuntza eskakizunaren jabe egin zen orain dela urte batzuk. Baina abiapuntua oso urruti zegoen. Lantoki honetara hurbildu zenean -honezkero hogeitabat urte badira- erdaldun peto-petoa zen, eta lehenengo urratsetik bertatik abiatu behar izan zuen ikas-prozesua. Lantokian euskara erabiltzen hasi zen, berak bezala oinarritzeko gaitasuna zuen lankide batekin tratua eginda. Zerbitzuak, era berean, antzeko

eraldaketa ezagutu du denbora tarte honetan. Hasiara hartan, hamaseitik bi edo hiru kide besterik ez ziren euskaraz egiten zutenak. Egun, ordea, gehienek hizkuntza horretan dihardute; euskara dute lan-hizkuntza nagusia. Luisek gainera, bere erabilera zabaldu zuen, buruan pilatuta zuen gehiegizko hizkuntza-informazioari nolabait bizkarra ematen hasi zenean.

JABIER: Oraino ikasten ari dena

Jabierren ikas-prozesua burutu gabea da, horretan ari da oraindik. Hitz egiterakoan, esan nahi duena nola edo hala komunikatzen du, baina zailtasunak eta mugak nabariak ditu. Orain hiru urte hartu zituen lehenengo euskarazko eskolak, mailarik baxuenetik hasita, bere herriko AEK Euskaltegian. Bultzada, kaletik etorri zitzaion, ez lantokitik (ez nabarmenkiro bederen); berak musika irakasle baitihardu aisialdian, eta euskara ikastea beharrezkoa du nonbait. Eskualde erdaldun samarrear kokatuta dagoen enpresa pribatu handi batean lan egiten du, eta inguruan lankide euskaldunak badituen arren, bakarrarekin, Juanmirekin, lortu du aski konfiantza euskaraz aritzeko. Iaz hasi ziren euskaraz. Ikuskizun dago oraindik harreman horretan hizkuntza ohitura berria finkatuko den ala ez.

ESTHER: Murgilketa prozesua euskararen uharte batean, erdararen itsasoan egon arren

Euskaraz lan egiten zuen gune bat topatu zuen Estherrek, 2000. urtean zonalde linguistiko erdaldun bateko herri administrazioaren erakunde handi samar batean informatikari gisa lanean hasi zenean. Bera baina, ez zen artean euskaraz hitz egiteko gauza. Erronka itzela zuen aurrean, inondik inora. Egun, ordea, hamar urteren bueltan, hortxe dugu Esther, EGA agiriaren jabe eta saileko kide guztiekin erabateko normaltasunez euskaraz egiten, idatzizkoan bezala ahozkoan ere. Saitetik kanpo, era berean, euskara bultzatzen eta erabiltzen ikusten dugu beste lankideekin ere. Ikas-prozesu nagusia lantokian bertan egin du, lanean eta lankideekin euskaraz arituz, txikitik handira, oinarrizkotik konplexura. Ez du euskaltegiaren aparteko beharrik izan ibilbide horretan, ezta hizkuntza era sistematikoan ikasteko beharrik ere. Besteak beste, lehen egunetik izan duelako alboan beti euskaraz egin dion eta lagundu dion lankide bat. Eta berak erabaki zuelako egunero praktikatzeko aukera ematen zion hura zela ikasteko lekurik onena. Erabilerari sakon lotutako ikas-prozesua izan da berea. Prozesu horrek estuki uztartu ditu, eta batera ehundu, euskaraz egiteko ohitura eta euskaraz egiteko gaitasuna. Euskara ikastea eta euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, ez dira bere kasuan bi prozesu bereizirik izan, bat bera baizik.

OIER: Euskara lozorrotik atera duen euskalduna

Oier, eskualde erdaldun batean kokatuta dagoen lan-kooperatiba handi samar bateko langilea da. Saldu ondoko teknikaria gisa dihardu. Eskolan erdietsi zuen euskaraz egiteko gaitasuna, baina euskararen erabilerari bizkar emanda bizi izan da eguneroko harremanetan. Hala, behinik behin, orain dela hiru urte lantokian euskara planak barrenak astindu zitzaion arte. Horren ondorioz euskaldunekin euskaraz egiteko ohitura garatu zuen, eta hala dirau gaurdaino. Iaz, beste esperientzia erabakigarri bat bizi izan zuen, zeinak hizkuntzarekiko ardura kaleraino eramatera bultzatu baitzuen: TELP izeneko tailerrez ari gara, lantokian bertan antolatuta. Tailer horiek barrua ongi astindurik, bestelako kontzientzia bat eskuratuta, horrek eraman zuen koadrilako aspaldiko lagunekin euskaraz egitera, haiekin 29 urteetan erdaraz egin ondoren. Txundituta bezain harro dago aldaketaren sakonaz.

C.- Ondorio nagusiak

Aztertutako kasu bakoitza da desberdina. Dena den, badira hainbat alderdi komun ere, guztien atzean antzeman ditugunak, eta ondorio hauetan laburbildurik aurkezten dizkizuegu:

Erabilera ardatza, bai hizkuntza ohitura berria eraikitzeko, bai bigarren hizkuntzaz jabetzeko

Erabilera ez da izan, gure protagonisten kasuan, prozesuaren bukaeran agertu den zerbait (irismen handiko sinismena baita zera dioena: kalean euskaraz hitz egiten hasi baino lehen euskara ongi samar ikasi behar da). Aitzitik, euskararen erabilera goiz hasi da prozesu hauetan, eta behin agertuz gero prozesu osoaren bultzatzaile nagusia izan da, nabarmen. Erabilerari esker, hizkuntza gaitasuna era ikusgarrian hobetu dute pertsona hauek, baina are gehiago: aldi berean lankideekin hizkuntza ohitura berria eraiki dute. Erabilerari esker, orduan, bat egin dute prozesu bakarrean euskara ikasteak eta euskaraz hitz egiten ohitzeak.

Esperientzia nagusia “bikoteetan” gertatu da

Gure protagonistek, euren hizkuntza jokaera aldatzeko egin duten ibilbidea abiatu, oso eremu txiki, babestu eta gertukoetan abiatu dute. Jokaleku nagusia, beraz, beti gertatu da hurbileko lankide euskaldun baten babesean², aurrez aurreko harreman goxoaren gerizpean. Hantxe, bikote horietan, eman da ikuspegi kualitatibotik urratsik garrantzitsuena, zeren horretan galdu baitiote beldurra benetako hiztun batekin hitz egiteari, horretan konturatu baitira zailtasunak zailtasun euskaraz komunikatzeko gauza izan zitezkeela, horretan baieztatu baitute euren gaitasuna egunetik egunera aurrera zihoala. Funtsezko hizkuntza-esperientzia hauek guztiak aurrez aurreko harreman baten eremu txikian gertatu dira. Ondorioak, gero, lurrikara baten epizentroak bere uhinak noranahi hedatzen dituen modu bertsuan, beste harreman batzuetara ere zabaldu dira lantokian bertan, bai lankide zaharrekiko eta bai etorri berri diren lankide euskaldunekiko harremanetaraino iritsita. Uhin horietako azken astinalditxoak lantokitik kanpora ere iritsi dira kasu gehienetan, eta lagunekin, familiarekin eta abarrekin ere euskarazko harremanak hasi dituzte gure protagonistek, baina honek, oro har, indar motelagoa izan du lantokian izaniko eraginarekin alderatuta.

Presioa kanpotik, zabaltasuna barrutik

Bi baldintza orokorrek bat egin dutenean abiarazi da harremaneko hizkuntza aldatzea ekarri duen bidea: batetik, euskararen aldeko kanpoko presioa, eta bestetik, norberaren jarrera positiboa euskara ikasteko eta erabiltzeko. Iniziatiba, normalean, kanpotik etorri da hastapenean. Eta, ondoren, gure protagonistek ongi, zabal eta gogoz erantzun diote kanpotik zetorkien hizkuntza eskaerari. Iniziatiba hori askotan erakunde mailakoa izan da: hala nola, euskara ikasteko hizkuntza eskakizunak, plazak hizkuntzaren aldetik perfilatuak izatea, euskara planaren ezarpena, edo euskarazko klaseen antolaketa. Batzuetan, eta zenbait lantokitan, derrigorrezkoa izan da eskari hori, beste batzuetan aukerazko proposamena. Batzuetan, kanpoko iniziatiba euskaldunen eskutik etorri

² “Bikote” deitu diogu hemen hurbileko bidelagun izan den lankide horrekin osatu denari.

izan da, adibidez euskaldungaiari³ harremana euskaraz egiteko eskatuz, edo zuzenean hizkuntza jokaera aldatuz (euskaraz eginez). Modu batean edo bestean, ingurunetik sortu dira euskararen aldeko inizatibak (erabilerari lotutakoak), eta gure protagonistak (euskaldungaiak) ez dira haiekiko errefraktarioak izan, ez dute erresistentziaz erantzun, ez dira uzkuritu; aitzitik erronkari gogotik eta jarrera eraikitzailez erantzun diote.

Bidelagun euskaradun, euskaltzale eta euskalgile baten ezinbesteko laguntza

Lankide arteko “bikote” horietan ia beti agertzen zaigu euskaldungai baten aldamenean euskaldun bat. Euskaldun horrek bere gain hartu ohi du inizatiba harremana euskaraz egiteko, eta berorri eusteko aurrerantzean. Euskaldun hori gaitasunez *euskara-dun*, jarreraz *euskara-zale* eta jokaeraz *euskara-egile*, horrela agertzen zaigu bikote guztietan, hau da: euskara dakien, estimatzen duen eta erabiltzen duen pertsona. Euskaldungaiak euskararekiko gogoia eta aldeotasuna agertzen du, euskarazko jokaera onartzen du, eta uzten du bere burua eramaten harreman berriaren zirrikituetan barrena. Euskaldungaiak euskalduntzeari lotzen zaiolarik, eta euskaldunak euskaraz egiten duelarik, egoera berriari eusten diote, euskarazko eguneroko harreman erreala posible eginaz.

Hizkuntza arau nagusia une batean aldatu da, ez pixkanaka

Aztertutako kasuetan, beti agertzen da inflexio puntu bat. Normalean era honetara esplizitatzen da: “Hemendik aurrera euskaraz”. Honek berekin dakar hizkuntza arau berri horren eraginpean jokatzeko gogoia eta asmoa. Eta gogo eta asmo honi, hasieran ez ezik, prozesu osoan zehar ere, eta gorabehera handirik gabe gainera, eusten zaio. Euskararen erabilera bera da euskararen jokaera finkatzeko modu erraz, zuzen eta emankorra. Hizkuntza jokaera berrian erdarak ere izaten du bere tokitxoak, baina salbuespen gisa beti ere. Halakoetan, erdara makulu edo helduleku gisa erabiltzen da hainbat hizkuntza zailtasunen aurrean, hainbat gai teknikoren aurrean, edo bestelako adierazpen puntualetan. Baina erabilera hau beti salbuespenezko erabilera da eta euskarazko jokaera (hizkuntza arau berria) auzitan jartzen ez duena.

Harreman berria mamitu beharra, kideak egoera berriaren aurrean elkarri egokituz

Harreman berria mamitu beharra dagoela esatean elkarri berregokitu beharra dagoela esan nahi dugu: “ha cuajado” zioen Oierrek bere testigantzan kideen arteko harremanaz ari zela. Hizkuntzari lotutako jokaeraz gain, zirrarak eta aldarteak ere dantzan ibili ohi dira halako harreman aldaketetan. Harremana berregituratzen ari denez gero, ez dira hizkuntza kontuak bakarrik aztoratzen direnak; haren inguruan aldarte eta zirrarazko erantzunen zurrumbiloa ere egokitu beharra dago. Harreman berri hori mamitu dela esaten dugunean kideek euren zirrarazko erantzunak sintonizatu dituztela esan nahi dugu. Bikoteko kide euskaldunek pazientzia eta lagunaren ahaleginarekiko estimua eta begirune handia erakusten dute sarritan. Euskaldungaiak, beren aldetik, zailtasunei eusteko kemena,

³ *Euskaldungai* hitza aukeratu dugu gure protagonisten hizkuntza izaera izendatzeko. Izendapen hori lehenetsi dugu finkatutako dauden beste batzuen aurretik. *Euskaldungai* kontzeptuak, hortaz, euskalduntze bidean ari den pertsonari egiten dio aipamena. Prozesuari berari ematen dio indar handiagoa emaitzari baino.

zabaltasuna eta ausardia. Alde baten eta bestearen jokaera osagarriak konfiantza giroa sorrarazten du haien artean.

Urtebete inguru behar izaten da erosotasuna egoera berrira etortzeko

Euskaraz egin eta elkarrekin guztiz eroso eta natural sentitu arte, gehiago-gutxiago urtebete behar izan dute gure protagonistek beren artean “hemendik aurrera euskaraz” bideari ekin ziotenetik. Euskaldungaiak hasieran edukitako hizkuntza zailtasunek aldi estu samarrak ekarri dituzte inoiz, baina oro har, prozesuaren ahalegina eramangarri eta neurrikoa suertatu zaie. Hizkuntzari lotutako zailtasunak gertakari naturalizat hartu dituzte, ezinbestekoak bailiran, eta ez dirudi horiek harreman pertsonalak kaltetu dituztenik. Alderantziz, bai ematen du kasu askotan zailtasunek balio izan dutela euskaldungaiaren eta euskaldunaren arteko konfiantzazko loturak indartzeko.

Gertuko harremana eta maiztasun handia beharrezkoak dira

Harreman hori normalean hurbileko lankideen artean gertatu da, elkarrekin ordu ugari ematen dituztenen artean hain zuzen ere. Ikusten denez, erabileraren bidezko euskalduntzeak berekin dakar hizkuntza harreman bizi eta ugaritan murgilduta egon beharra. Baldintza hau, antza, hurbileko lankideekin ematen da gehien-gehienik. Hala ere, ñabardura batzuk erantsi beharko genizkioke ondorio honi. 1) Harremanaren maiztasunak eta hurbiltasunak funtsezkoak dirudite tartean euskalduntzen ari den inor baldin badago, baina ez bestela (esaterako hizkuntza ohituraren aldaketaren protagonistak euskaldunak baldin badira). 2) Harremanaren hurbiltasuna handi samarra denean (esaterako: bestea lankidea izateaz gain adiskide ere badelako), honek onura beharrean oztopoa ekar diezairoke hizkuntza ohituraren aldaketa abiatzeko, eta abiatzekotan hari eusteko helburuari. Halako egoera batek zirrarezko osagai ugari ditu tarte-tartean, eta aldaketa eragiteak eska dezake energia, kemena eta adore handi samarra sartu beharra, gehiago behinik behin harreman neutralago batek eska dezakeena baino.

Konfiantzazko giroa hierarkia harremanen gainera

Aldaketa prozesuak garatu diren “bikote” horietan, batzuetan, estatus bereko kideak ziren bi langileak. Baina tartean baziren beste era bateko harremana zeukatenak ere, hots, bata arduraduna eta bestea langilea zirenak. Ordea, ez dirudi prozesuak oso bestelakoak izan direnik, funtsari begiratu gero behinik behin. Halako bikoteetan sortzen den konfiantzazko giroak den-dena bustitzen du, eta dirudenez honek indar handiagoa du hierarkia harremanak berak baino. Ñabardurak badira, nola ez ba. Hala, bikoteko euskalduna lan-arduraduna denean, horrek euskaraz egin beharri are balio handiagoa ematen dio euskaldungaiaren begien aurrean. Alderantziz denean, hau da: bikoteko euskaldungaiaren lan-arduraduna denean, horrek langile euskaldunaren begirunea eta estimua sorrarazten ditu. Ñabardurak ñabardura, elkarrekiko sortzen den konfiantzazko giroa da benetan azpimarratu beharreko alderdia, halako aldaketa prozesu batean beti dagoelako kide bat gutxienez epe batean “ahultasun” egoeran dagoena (euskaldungaiaren). Kide horrek ziurtasun sentsazioa behar du bere ibilbidean aurrera egiteko.

Lantokia euskaltoki nagusia

Euskaldungaiak lantokia bera izan dute euskara-toki nagusia. Bertan, ordu asko egunero, eta egun asko hilero, eta hilabete asko urtero eman dituzte euskaraz alboko euskaldunekin. Hortxe eskuratu dituzte, funtsean, euskaraz egiteko erraztasuna eta gaitasuna, euskaraz egiteko ohitura eta konfiantza, eta euskara barne-hizkuntza bezala lan-hizkuntza ere sentitzeko bultzada. Esan genezake, hortaz, erabilera errealean bidezko euskalduntzea funtsezkoa izan dela azterketa honetako protagonista guztientzat. Komeniko litzateke gogoratzea, bide batez, erabilera errealean subjektuek ez dutela fokua hizkuntzan bertan jartzen (irakaskuntza egoeretan normalean gertatzen den bezala), baizik eta egin beharreko eginkizunetan: lan kontuetan, harreman kontuetan eta abarretan. Hizkuntza kontuak urtu bezala egiten dira komunikazio errealean itsasoan. Lantokiko erabilera errealean gain, euskaltegien (edo euskara-eskolen) laguntza ere izan dute euskaldungaiak prozesuan zehar, baina honi dagokionez kasuistika zabala antzeman dugu euskaldungaien artean. Hala, esaterako, kide gutxi batzuek urte asko eman dituzte hizkuntzaren ikaskuntza formalean erabilera errealean heldu aurretik. Badira beste batzuk -hauek ere gutxi dira- behin erabilera errealean bidezko hizkuntza gaitasuna eskuratu ondoren euskaltegiara hurbildu direnak (adibidez, hizkuntza agiria eskuratzeko, edo gaitasun formala hobetzeko). Gehienek, ordea,aldi berean eraman dituzte bi prozesuak, alegia, lantokian euskararen erabilera errealean lotu eta euskaltegian (edo lantokian bertan antolaturiko euskara-eskoletan) hizkuntzaren lanketa formal eta sistematikoari heldu, biak ala biak elkarrekin joan dira.

Hizkuntza gaitasun mugatua ez da euskara erabiltzeko oztopo

Euskaldungai gehienek lantokiko euskaldunekin euskararen erabilera errealean heldu ziotenean tarteko gaitasuna besterik ez zeukaten. Alegia, mezu arruntak edo sinpleak komunikatzeko gauza baziren ere, bestelako mezu konplexuagoak adierazteko, edo zehaztasunak eta ñabardurak emateko, oraino hizkuntza zailtasunak aurkitzen zituzten, hitzen faltagatik edo sintaxiaren garapen mugatuagatik, besteak beste. Horrek adieraziko luke ez dela beharrezkoa itzarotea hizkuntza gaitasun altua eskuratu arte erabilera errealean lotzeko. Bestalde ere, adieraziko luke erabilera errealean lotzeko garaian hizkuntza gaitasuna baino erabakigarriagoa dela protagonisten jarrera eta hizkuntza harremanetan beste kideekin eraikitzen duten ingurugiroaren egokitasuna. Esango genuke, aztertutako euskaldungaiak ez direla nabarmentzen euskararekiko abiapuntuzko jarrera edo motibazio berezi bat edukitzeagatik. Gure ikerketako protagonistek, zehazki, ez zeukaten euskararekiko grina apartekorik (ez gehienek behinik behin) euskalduntze prozesuari heldu behar izan ziotenean, ezta kontrako erresistentziarik ere egia esateko. Euren jarrera irekia zen, egoerak eskatzen zuenari modu eraikitzaileaz erantzuten ziona. Jarrera zabal horrek lagundu zuen kide euskaldunekin ingurugiro babestuak sortzen euskara egunerokotasunean erabiltzeko. Ingurugiro horretan, harreman horretan, egoera eta prozesu horretan, hantxe elikatu zuten aldiro langile hauek euskararekiko gogoia. Ibilbideak berak handitu zuen langile hauen motibazioa, eta gero eta sakonago errotu zituen euskararen erabilera errealean.

D.- Ikerketaren fitxa tekniko

➤ Ikerketa:	<i>Aldahitz ikerketa 2011. Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan-munduan.</i>
➤ Iraupena:	2010eko ekainetik 2011ko ekainera.
➤ Egilea:	Soziolinguistika Klusterra.
➤ Talde teknikoa:	Pello Jauregi (HUHEZI), Zuzendaria; Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra), laguntzailea eta koordinatzailea.
➤ Lantaldea:	AEK (Nerea Ibarluzea), Elhuyar Aholkularitza (Agurtzane Loidi), Emun (Gurutze Mendizabal), Eusko Jaurlaritzako HPS (Jon Aizpurua), Hernaniko Udala (Malores Etxeberria), HUHEZI (Pello Jauregi) eta Soziolinguistika Klusterra (Pablo Suberbiola).
➤ Finantziak:	Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila (HPS). 2010ean eta 2011n.
➤ Informazio zabalagoa (txostenak):	a) <i>Aldahitz 2011. Ondorio nagusien txostena.</i> b) <i>Aldahitz 2011. Ikerketaren txosten osoa.</i>
➤ Harremanetarako:	Soziolinguistika Klusterra. E-posta: p.suberbiola@soziolinguistika.org www.soziolinguistika.org. 943.592556.